

DBH3_Euskara_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea	Endika Legarra Nuin Amaia Nadal Maisterra	Maila	DBH 3	Ikasturtea	2021/2022
-----------	--	-------	-------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaia derrigorrezkoa da maila honetan eta astean 3 saio ematen dira. Ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzea du helburu nagusi irakasgaiak.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK		
	1	2	3
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.	X		
3) Gaitasun digitala.	X	X	X
4) Ikasten ikastea.	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK[DBH CURRICULUMA](#)**EDUKIAK**[DBH CURRICULUMA](#)

(Eranskinak barne dituen dokumentuan, 122. orrialdetik aurrera)

1. UNITATEA (EKI 2): EUSKARAREN LEKUKOAK

Proiektua: ikasleak, eremu sozialeko egoera batean, elkarlanean arituz eta iturri desberdinak baliatuz, herriko errealitate soziolinguistikoaren eragileak aztertuko ditu, eta errealitate hori idatziz zein ahoz deskribatu eta esplikatu egingo du edukiaren komunikazioan kode desberdinak integratuz.

Testu motak eta tipoak: azalpen testua (planifikazioa, sorkuntza, autozuzenketa).

Edukiak:

- Aditza: aditz jokatuena sailkapena (nor, nor-nori, nor-nork eta nor-nori-nork). Pertsona morfemak. Indikatiboa.
- Sintaxia: izen sintagma eta osagaiak, aditz sintagma eta osagaiak, eta adjektibo sintagma.
- Kalko okerrak.
- Soziolinguistikaren inguruko hiztegia.

2. UNITATEA (EKI 1): ITURRAMA SOLIDARIOA PROIEKTUA.

Proiektua: Ikastetxeko **Berrikuntza Proiektuen** arteko bat da **Iturrama Solidarioa**, ikasgai honetan honi lotutako proiektu edo zeregin hau burutzen da: migrazio mugimenduen eragile diren arazoak eta migrazio mugimenduak berak ezagututa, errealitate hau erakusteko narrazioak sortu. “*Miñan*” liburua, Ibrahim Balde eta Amets Arzallusek idatzitakoa, gaien murgitzeko erabiliko dugu. Irakurketa partekatua eginez, migratzaileen bizipenen berri izateaz gain, narrazio literarioen ezaugarriak ere barneratuko dituzte. Abiapuntu hau izanik, narrazio literario bat sortuko dute. Taldeka horietako narrazio bat aukeratu eta film bilakatuko dute.

Testu mota eta tipoak: narrazio testua (planifikazioa, sorkuntza, autozuzenketa).

Edukiak:

- Morfologia: izen-sintagmaren osagaiak: izena, izenordaina, izenondoa eta izenlaguna, determinatzaileak.
- Aditza: baldintza hipotetikoak.
- Deklinabidea: leku denborazko kasuak.
- Narrazio elementuak.
- Narratzaile motak.

3. UNITATEA (EKI 3): IKA-MIKA

Proiektua: Besteengan eragitea helburu duen interakzio egoera batean, ikasleak ahoz bere ikuspuntua eman eta justifikatu, besteak kontuan hartuz.

Testu tipo eta motak: argudio testua: eztabaida.

Edukiak:

- Pertsona izenordainak.
- Deixia: pertsona-, denbora- eta toki-deiktikoak.
- Aditza: baldintza irrealak.
- Jarrera islatzeko modalizatzaileak: iritzizkoak eta baloraziozkoak (adberbioak, esamoldeak, aditz modalak, adjektiboak...).
- Lexiko baliabideak: sinonimia, hiperonimia, eremu semantikoa, ...
- Argudio motak.

SKOLAE:

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae** berdin bidean programa integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude. Kurtso honetan bi jarduera landuko dira, 1. eta 2. ebaluazioen bukaeran.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
33	1. unitatea (EKI 2)	31	2. unitatea (EKI 1)	28	3. unitatea (EKI 3)

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

EKI proiektuko 3. DBHko hiru liburuak, jarduera fitxak eta lan koadernoak baliatuko ditugu. Gramatika atala lantzeko, berriz, testu liburuaz gain, ariketa osagarriak burutuko dira bestelako iturrietatik.

Proposatutako lanak talde txikian (IK/KI metodologiaren arabera taldekatuak) edo bakarka eginen dira. Ikasturtean zehar hiru proiektu garatuko dituzte teoria eta praktika uztartuz. Ikaskuntza Kooperatiboa eta Baterako Heziketa izango ditugu kurtso osoko ardatz.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA ETA TRESNAK

Klasean nahiz klasetik kanpo eginen diren lan guztiak hartuko dira kontuan ebaluatzeko garaian. Ebaluazio bakoitzaren azken emaitzak ondorengo atal hauen arabera eta proportzio hauetan emanen dira:

- Euskararen erabilera ikasgelan %10
- Jarrera eta lana (materiala ekarri, lan giroan lagundu, parte hartu, etxerako lanak egin...) %10. Gutxienez 4 bat atera beharko da batez-bestekoa egin eta ebaluaketa gainditu ahal izateko.
- Proiektuak eta azterketak %80

Ikasturte osoko emaitzak proportzio ezberdinetan banatuko dira, hiruhileko bakoitzean landuko den proiektuaren zailtasunaren arabera. Hona hemen banaketa:

- 1. ebaluazioa: %30
- 2. ebaluazioa: %35
- 3. ebaluazioa: %35

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Ikasturtea gainditzeko gutxieneoek bat egiten dute legeak zerrendatzen dituen estandarrekin (ikus goian "Estandar ebaluagarriak" atala).

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Aurreko ikasturtea:

- Aurreko ikasturteko *Euskal Hizkuntza eta Literatura* irakasgaia gainditu gabe izanez gero, irailean beste proba idatzi bat egiteko aukera izanen dute. Horrela gainditu ezean, mailako irakasleak egingen dio jarraipena eta aurreko ikasturteko ikasgaia gaindituzat emateko lehenbiziko eta bigarren ebaluazioetan gutxienez 4koa lortu beharko da. Hala ez balitz, apirilean beste proba idatzia gainditu beharko da.

Dagokion ikasturtea:

- **Ebaluazioa:** ikasleak ebaluazio bat gaindituko ez balu, berreskurapen azterketa egingo luke horretarako aurreikusten diren egunetan.

- **Azken ebaluazioa:** hiru ebaluazioen ehunekoak aplikatu ondoren, 5 baino gutxiago ateratzen duenak azken ebaluazioa egin beharko du. Proba horretan 5koa lortuz gero, kurtsoa gaindituzat joko dugu.

- **Ezohiko deialdia:** "azken ebaluazioa" gainditu ezean, ekainaren erdialdean ezohiko azterketa egingen dute. Estandarren arabera prestatuko da eta notaren %100a izanen da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasturte honetan kanpo ebaluaziorik ez badago ere, 2. mailan egindako Froga Diagnostikoen analisitik abiatuta, zenbait alderdi landuko dira:

HELBURUAK	JARDUERAK
<p>Proiektuetan ulermena zein testuaren alderdi formalak egoki lantzea.</p> <p>Testuen hainbat alderdiren analisi sistematikoa egitea.</p> <p>Inferentziak egitea, ondorioak ateratzea eta asmoa identifikatzea.</p>	<p>Inferentziak egin, ondorioak atera, baliabide tipografikoen erabilera aztertu, testu tipoa antzeman, asmoa identifikatu, grafikoak interpretatu, konnotazioa landu, igorlea eta hartzailea identifikatu, antolatzaileak landu, hiztegia aberastu, galde moduak ezagutu, poesiaren alderdi teknikoaren analisia egin (baliabide literarioak, hartzailea, igorlea, egitura...) eta gertakarien ordena kronologikoa interpretatu.</p>

OHARRA: Ikasturtean zehar irizpide pedagogikoen arabera zerbait alda liteke beharrezko balitz.